

# noaua

**Asteartean hasiko da  
Mendi Astea**

**Igandean, Erle Eguna**

**Mintzalagun-en beharra  
dute euskara ikasleek**

**101 auzokonpostari  
ari dira organikoa tratatzen**

# izan mintzalagun

## praktikatu gurekin!



### ZEIN DA MINTZALAGUNEN HELBURUA?

Mintzalagun proiektuak gure kaleetan euskararen presentzia zabaltzea eta handitzea du helburu nagusia.

### ZER DA MINTZALAGUN?

Talde txikietan eta eskaldun laguntzaile batekin **mintzataldeak** antolatzen ditugu, astean behin elkartzen direnak. Eta partaideen zeregina da **euskaraz hitz egitea**.

Mintzalagun egitasmoan parte hartuz, **euskaraz hitz egiteko ohitura** sortzen da, eta **euskara-maila hobetu**. Gainera, **kultur ekitaldiak** (lehiaketak, ikus-entzunezkoak, tailerrak...) ere antolatzen ditugu. Eta guzti hau, **DOHAINIK**

### INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA

Mintzalagunen apuntatzeko **AEKn** edo **NOAUAN**.



[www.mintzalagun.blogspot.com](http://www.mintzalagun.blogspot.com)

[usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)

[mintzalagunak gara](#)

607 609 379  
943 360 321



# usurbil

Suntatzaileak:



Etumeta Euskategia



www.noaua.com



ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea.  
20170-USURBIL



## Albisteak iruditan

# Iñaki Murua, Udarregi Sariketako txapeldun

Iñaki Murua jantzi zuen garailearen txapela, larunbat gauean Agerialden ospatu zen Udarregi Sariketako finalean. Hunkituta eta pozik, bertaratutakoen txalo artean jaso zuen saria, epaimahaiak hala erabakita. Finalurrekoetan bezala, final handian ere, entzuleek bazuten baita zeresanik; gehiengoak Iban Urdangarin gaztearen alde bozkatu zuten. Entzuleen saria berarentzat izan zen.

Bi sarituz gain, ezin ahaztu, beste lau finalistak ere; beteranoetan, Millan Telleria eta bertso saioari umore puntu nabarmena jarri zion Xabier Zeberio. Gazteetan, Ander Lizarralde eta Unai Gaztelumendi.

Artzabalen eta Aginagako San Praixkuetan ospatu ziren finalurrekotako zenbait bertsolari ere larunbateko finalean ziren. Eta haiekin, bertso afarian bildutako jendetza, 80 lagun inguru. Sarrerak ere agortu egin ziren.

Azaroaren 17ko saioarekin, amaitu da Bota Puntutubak antolatatu duen txapelketa. Parte hartzaileon ahalegina, bertsolarien maila ederra eta lagun arteko giro ezin hobea utzi dizkigu beste behin, Udarregi Sariketak.



Iñaki Murua, II. Udarregi Saria jaso berri. Iban Urdangarinek eraman zuen entzuleen saria.

## Laburrean

### Akatsak zuzenduz

Azaroaren 16ko astekarian, Garbiguneari buruzko albistean, bertako langilearen adierazpen batzuk jasogenituen. Raimundo Gorriti zela aipatzen genuen, baina ez, Raimundo Lizarreta da. Barka eragozpenak.

### Sortu-ren bilera deialdia

Sortu alderdiaren eratzte prozesua dagoeneko martxan da. Usurbilen, oinarri ideologikoen inguruko eztabaida egingo da larunbat honetan, azaroak 24. Arratsaldeko 16:00etan Potxoenean, goiko gelan.

### Gabonetako otarrak

Aurten ere Xiberoko ikastola laguntzeko modua izango da. Nafartarrak taldeak, Zuberoako produktuek osaturiko otarrak salgai jarri ditu. Otarrak eskuratzeko, Txiribogan, Bordatxon edota NOAUA! egoitzan eman daiteke izena.

# noaUA

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaUA.com /// www.noaUA.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publikitate:** Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaUA.com.

**Diseinu berria:** Erroitiz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noaUA.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Aloña Esnaola,  
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Iruñaldea

Iruñaldea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

## Gure belaunaldia

**S**uperBat klubeko kideak ginen, eta gure urtebetetzeak heltzerakoan, telebistako pantailari pega-pega eginda egoten ginen, zerrenda luze hartan gure izena noiz aterako. Euskaraokea Ixiar Orejak aurkeztzen zuen: Usurbila ere etorri ziren, eta ai! Eskerrak VHS zintak akabatura daudela...! Ez genituen EGB eta BUP ezagutu, guk Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin genituen. Hogeitabost pezetako txanponak zuloa zeukan erdian, eta txibari jartzen genion jolasteko. Txandarra erabiltzen genuen, Udarrregi Ikastolako, Errealarena, edo Astoreren besteren bat, edozein. Igandetan ez: Igandeko Arropa geneukan (horrela, maiuskulaz). Kasetetan entzun genituen lehenengo abestiak: Gozategi, Alaitz eta Maider edo Karibe Mix 95 (edo 98). Bai, Karibe Mix.

Garaiak asko aldatu dira, baina.

Eta gu ere bai, gu ere asko aldatu gara. Gure artean oso desberdinak izanagatik ere, bide batetik edo bestetik, helmuga berera ailegatu gara. Batzuk hobeto, edo agian, zorte hobearekin, eta besteak gutxiagorekin. Batzuek lana dute, besteek bileran egiten dituzte aldi berean, batzuk langabezian daude, eta beste batzuk, langabezia saihestearren, ikasten hasi dira berriro. Zeinen tristeia den egun enpresa batean lanean hasteko modu bakarretako bat bertan praktikak egitea dela pentsatzea...

Noiz aterako gara krisitik? Hemendik lau urte barru? Ez dakit nork esan zidan ez dakit non entzun zuela (ez dakit noren arabera, bide batez) 2016an hasiko zela egoera hobetzen. Urte batzuk badira guzti hau hasi zenetik eta pesimista xamarra izango naiz, baina iruditzen zait oso goiz dela. Dena dela, eman dezagun baitetz, 2016an ate-

rako garela: lau urte, edo hiru eta gutxi gehiago falta dira. Pentsa zenbat titulatu-berri, zenbat jende kualifikatu, eta lan egiteko amorratzen noski, egongo den. Kalkulatu ordurako zenbat urte izango dituzun, eta konturatu zaitetz: zure kurrikulumean arreta deitzen duena azken urteetako ezereza izango da. Ikasitako guztiak buruan fresko dituztenek mila buelta emango dizkizute ordurako.

Burutik pasa zait guri ez digula etxe desjabetzearen eragingo, ez dugula etxe propioa erosteko adina dirurik (kontraturik, egonkortasunik) sekula izango, eta tira. Hori behintzat gure alde daukagu. Eta uler bedi desesperazio edo pesimismotik gauza guzti alde ona bilatzearen asmo baikor edo inuzente batetik.

Unibertsitatean geundela gehien abesten genuen kanta Gariren "Esperantzara kondenatua zen", eta azke-

naldian buruan izan dut bueltaka berriz. Euskaraz nekez moldatzen zen irakasle batek lan bat "suspendu zutela" esan zien lagun batzuei, eta ordutik "Suspenduta team" jarri genion izena gure lagun kuadrillari. Azterketa batetik irten eta oso ongi egiten ez zuenak abesten zuen: "garai-penik ez da galtzekorik gabe". Onean zein txarrean, umorea mantentzen saiatzen ginen beti.

Kontua ez da negar egitea, errealitateari aurrez aurre begiratzea baizik. Galdutako belaunaldia omen gara. Ez nuke ezetz esango. Mileurista izena hartzeko bezainbeste irabazten ez dugunok. Bekadun/praktikante izatera kondenatutakoak gara.

Eta? Ezingo dugu negarrez eman hainbeste denbora. Zerbait egin beharko da! Hori behintzat gure esku baitago; aurrera egitea, edo atzean gelditzea, alegia.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregerai | Unai Agirre

### Ika-Mika

## Euskaraz bizi nahi dugulako

**A** benduaren 1ean euskal herri-tarok hiztordua dugu Donostian, manifestazioa burutuko dugulako, bertan, "Euskaraz bizi nahi dugu" lelopean.

Milaka herritar gara euskaraz bizitzeko hautua egin dugunok; baina, zoritxarrez, milaka arazo aurkitzen dugu geure nahia betetzeko. Oraindik ere lan handia dago egiteko euskararen normalizazioan; hori azpimarratu du, duela gutxi, Europako Batzordeak berak, Hizkuntza Gutxituen Itunaren konpromisoak betetzen ote diren aztertu ostean.

Jorratu beharreko bideak askotarikoak dira, beraz, baina bereziki bi esparru indartu behar dira: euskararen ezagutza eta euskaraz bizi ahal izateko guneak. Biak ala biak bultzatzen ditugu AEKn, jakina, eta horretxegatik egiten dugu bat manifestazio deialdiarekin.

(...) Aipatutako arlo bi horiek lantzen ditugu AEKn, euskararen normalizazioan giltzarria den hirugarren zutabearekin batera, sustapena hain zuzen ere. Sustapenean, KORRIKA dugu ekimenik garrantzitsuena; bi urtean behin euskararen alde mila-

ka lagunek betetzen dituzte Euskal Herriko errepideak. Datorren udaberrian, hain zuzen ere, 18. Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka pertsonak omenduko ditu, euskalari izateko ahaleginean euskarara ikasten eta praktikatzeko ari diren guztiak, beraiek direlako euskararen berreskurapenean zutabe garrantzitsuenetariko bat. Izan ere, helduak euskalduntzen doazen heinean, transmisioan etenik egongo ez dela ziurtatzen ari gara. Ikasi eta baliatu nahi dutenek egiten duten ahaleginari esker, elkarbizitzarako auke-

rak sortzen eta denok euskaraz bizitzea ahalbidetzen ari dira.

Hau guztiak premiazkoa eta lehen-tasunezkoa dela ikusi beharko luke hurrengo Jaurlaritzak, eta hori da, hain zuzen ere eskatzen eta eskatuko duguna. Beraz, orain arte esan dugun guztiagatik, inongo aitzakia barik, abenduaren 1ean denok Donostia-ra, "euskaraz bizi nahi dugulako".

**Oskar Elizburu eta Mertxe Mugika, AEKren Artezkaritza Kontseiluko kidea eta AEK koordinatzaile nagusia.**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko.

Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: azaroak 30. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 26. Gogoan izan abenduaren 6ko astean ez dela NOAUA!rik argitarara emango.

# Mintzalagunen beharra dute euskara ikasleek

**H**irugarren ikasturtea abian du Mintzalagun ekimenak. Usurbilen sustraitzen ari den euskararen mintza praktika-rako egitasmoan izen emateko epea irekia dago. Apuntatzeko, Etumeta AEK euskaltegira jo besterik ez dago, edo bertara deitu, 607 609 379 telefono zenbakira. Edo idatzi, usurbil@aek.org helbidera. Informazio gehiago, [www.muntteri.blogspot.com.es](http://www.muntteri.blogspot.com.es) blogean. Izen ematea, NOAUA!ko egoitzan edota Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuan, Potxoenean ere egin daiteke.

Euskaltegitik berri eman dutenez, bostetik gora dira Usurbilen, biltzen diren taldeak. Guztira, hogeitik gora mintzalagun, gainerako herritarrek ekimen honekin bat egitera deitzen dituztenak. "Praktikatu gurekin! lemapean, beraiekin batera euskaraz gozatzeke gonbitea egiten digute", berri eman du euskaltegiak, prentsa ohar bidez. Abantailarik ere badu Mintzalagunen parte hartzeak. "Partaideek EHUko kredituak eskuratu ahalko dituzte, bidaia eta egonaldietarako deskontuak, AIZU! eta Argia aldizkariak eta Berrria egunkaria merkeago, eta beste hainbat abantaila", gaineratu dute.



**Ikasitakoa praktikan jartzea ezinbestekoa da euskara ikasten ari direnentzat.**

## EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA

Gehiagorako ere ematen du noski, Mintzalagunek. "Ez da gauza berria hizkuntzaren ikaskuntzan, ikasitakoa praktikan jartzea ezinbesteko kontua dela; euskara praktikatzeaz gain, jende berria ezagutu, euskararen munduan murgildu eta, finean, euskaraz bizitzeko aukera izango du izena ematen duenak. Mintzapraktika programa euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenekin elkartzean datza. Bertan, edozeinek har dezake parte, euskaldun zaharra, euskaltegiko ikasle ohia edo euskaltegiko ikaslea izan...", adierazi dute.

# Udal aurrekontuak lantzen



**Astlehenean Aginagan izan ziren. Ostegun honetarako Potxoenean jarri dute hitzordua, 19:00etan.**

**A**maitzear da, 2013ko udal aurrekontuak lantzeko Usurbilgo Udala auzoz auzo burutzen ari den bilera erronda. Azken hitzordua, ostegun honetarako, azaroaren

22rako deitu du, 19:00etan Potxoenean. Joan den astetik hona, Kalezarren, Zubietan, Txokoalden, Aginagan eta Santuenean bilkura bana egin da herritarrekin.

## Euskarazko Produktuen Katalogo berria, kalean

Urte amaierara heldu gara, eguberriak ate joka ditugu, euskarazko produktuak oparitzeko aitzakia ezinhobea. Baina zer oparitu? Hor dago gakoa. Erabakitzen laguntzeko, urtero moduan, jada hamabosgarren ediziora heldu den Euskarazko Produktuen Katalogo berria aurkeztu dute. Guztira, 140.000 ale banatuko dira. Hortik, sorta bat Usurbilen noski. Papereko bertsioarekin batera, noiz nahi euskarazko produktuen eskaintza eguneratzen duen web orrialdea ere hor dago: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org). Bertatik ere, katalogoaren paperezko bertsioa eskuratu liteke.



**Usurbilen ere banatuko da katalogoa.**

## Aginagako Eliza Zaharra konpontzeko deia

Bidean Aginarron Herri Elkartek, Aginagako Eliza Zaharra auzolanean eraberritzeko gonbita luzatu du. Deialdia egin ahala, jada "herritar askok erakutsi dute bertan lan egiteko asmoa" azaldu dute prentsa ohar bidez. Parte hartu nahi duten guztientzat, ikastaro bat antolatu dute abenduaren 2an, 16:00etan Aginagako ludotekan. "Ezinbestekoa da ikastaro hau egitea, gero eraberritze lanetan parte hartzeko. Beraz, animatu zaitzete herri lanera!". Eliza zaharra eraberrituta, erabilera anitzeko toki bihurtu nahi da.

## Meditazioari buruzko hitzaldia Aginagan

Antxomolantxa Auzo Elkartek eta San Praxku Guraso Elkartek, "Ekialdeko kontenplazio teknikak" hitzaldia antolatu dute, azaroaren 26rako, 17:30-18:30 artean, Aginagako ludotekan. Marina Pintos yoga irakaslea arituko da hizlari lanetan. Gaiok jorratuko ditu: Meditazioak haurren onurak, Ekialdeko meditazioa Mendebaldeko eskolatan eta zenbait herrietako proiektuak.


**AGINAGA**
**LONTXO ZUBIRIA**

## Txaganeta: tristura

**H**orrelaxe sentitzen dut baratzetarako onak diren lurrak galtzen edo galtzeko zorian ditugunean. Horixe da gertatzen ari zaiguna Aginagako Txaganetako gunean, Ongi-etorri paretik Lertxundi arteko soroan. Lehen ere idatzi nuen gai honi buruz NOAUAK eskaintzen didan atal honetan. Eta orain, lehen udalean defenditu nuen modu berdinean azaldu nahi dut nire jarrera.

Alegia, N-634 errepidetik ibai aldera dauden lur guztiak zaindu egin behar ditugula, landa eremu bezala mantenduz eta azken urteotan industrial izendatutakoak berriro nekazaritzarako jarritz. Badakit garai ekonomiko gogorak datozkigula eta, lanpostu batzuk egon daitezkeela jokoan eta lanik gabe ez dagoela etorkizunik. Baina Aginagako baserri lurretan egin litezkeen pabilioiak egiteko, badago lehendik ere nahikoa terreno industrial eta pabilioi huts bazterretan, badago non aukeratua orain arte ikutu gabeko lurrak betirako hondatu gabe. Gainera, ez da egia txikiagoa nekazaritzarako lurrak galtzen badira gure etorkizuna hipotekatzen ari garela.

Oso esaldi potoloak esatea gustatzen zaigu askotan, "elikadura burujabetasuna", "iraunkortasuna", "zero zabor" eta abar. Baina horrelako erabaki okerrekin ipurdia bistan geratzen zaigu. Eten gabe segitzen dugu dena betetzen porlan eta galipotez, nahiz eta lehendik eraikitako asko hutsik egon alfer-alferrik. Etorkizuneko jendeak jan ahal izan dezan gero eta lur gutxiago geratzen zaizkigu. Beraz, tinko zaindu ditzagun gure lurrak.


**SANTUENEA**
**JON ETXABE**

## Udazken gastronomikromatikoa

**K**aleetako freskura ahaztuta, auzotarrek barrera berotzeko aukera paregabea dute aurten ere barrikoteen inaugurazioarekin. Zuhaitzetako hostoen karamelu, txokolate, laranja eta tomate koloreetatik jada ahaztua genuen sagardoaren berde jaioberrira, bakailaoaren azal zilarkara eta gazta on baten zuritasunera itzultzen da inguru elkartean, festa giroan eta kontu-kontari ibiltzeko asmoarekin. Eta handik ez hain urrun, basoko isiltasunean, orbelen estalpean, patxadaz eta dotoreziaz, perretxikoak hazi dira, samur, lerdin eta izutuak. Berdeak, marroiak, horiak, gorriak... Guztiak beldurrez bizi dira, ze beraien txapelak euritik babesten dituen arren, inork ez ditu salbatuko igande goizean mendira joatea otutzen zaion barrikotezaleren baten labanaren zorrotasunetik. Eltzera sartuko badituzue ere, utz iezaezue ondorengotza izateko kontsolamendua, badakizue, moztu bezain laster perretxikoa astinduz bere esporek lurra ernaldu dezaten, hurrengo urtean ere hamaika koloretako gutziak jaso ahal izateko.


**KALEBERRI**
**MADDI ZALDUA**

## Asteburu konpletoa!

**L**arunbata, goizeko 10ak, asteburuko lehen ekintza. Usurbildarrek Bilgune Feministako kideak eskaintako auto-defentsa feministaren tailerrean parte hartzeko aukera izan zuten. Lau orduz aritu ziren autodefentsa feministaren, eraso sexisten eta abarren inguruan solasean. Giro ederrean igaro zuten saio teorikoa, eta abenduaren 1ean izango du jarraipena tailer praktiko baten bitartez.

Asteburuko bigarren ekintzarako txanda gero. Arratsaldeko seiak aldera ospatu zen Pagazpe elkarteak antolatutako pilota jaialdia herriko frontoian. Neurketa ezberdinak izan ziren ikusgai; gurpildun aukietan jokatu zutenen arteko lehia alde batetik eta zuti-kakoen artekoa bestetik. Giro beroa sumatu zen ezker pareta inguruan.

Egunak aurrera egin ahala, gau-partean gozatzeko parada ere izan zen herrian; Botapunttuba bertso eskolak bigarren urtez antolatutako Udarregi Sariketaren finala ospatu baitzen Agerialden. Iluntzeko bederatzietarako jarria zegoen zita eta orduantxe elkar-tu ziren bertso-eskolako kide, bertsolari eta ikusleak afari baten bueltan saioaz gozatzeko asmotan. Ekitaldiak aurrera egin ahala eta azkenerako epaimahaiak horrela erabakita, Iñaki Muruak jantzizuen merezitako garaile txapela eta berarekin batera, Iban Urdangarinek eskuratu zuen entzuleen oroigarria. Zer dakar datorrenak? Asteburu on!


**KALEZAR**
**MADDI GALBETE**

## Bertsoez eta...

**E**z da erraza ekimen bat aurrera ateratzea. Aurrez ikusi gabeko mila buruhauste azaltzen dira bidean aurrera egiten dugunean eta oztopoen aurrean batzuetan baka-rik aurkitzen gara. Baina hala ere ekin egiten diogu bideari; onurek buruhausteez baino pisu gehiago duten seinale. Asteburu honetan ere bildu gara Udarregi Sariketako bigarren edizio-ko azken saio honetan.

Giro ederra eta saio paregabea; parranda polita eta goizean goiz etxera. Nik horraino irakurri dezaket (akaso pixka bat haratago ere bai, bertan buru belarri dabilzan lagun bat edo beste badudalako). Baina gaurkoa egiten ekimen honen (eta herriko beste horrenbesteren) atzean daudenei eskaini nahi nieke, egiten duten lan paregabea debaldekoa dela senti ez dezaten.

Mila esker egiten duzuen lan guztiagatik eta herriari halako bizia emateagatik, eta segi horrela!

# Iturriotzeko kobazuloetan

**D**BH leko ikasle eta irakasleak Iturriotzeko kobazuloan pasa genuen goiza, Ernion eta arratsaldean ibilaldi luze bat Aiaraino egin genuen. Guretzako mendi irteera hau egun lasaigarri bat izan da. Naturarekin harremana izateko, elkarrekiko harremana handitzeko eta baita irakasleak hobeto ezagutzeko balio izan digu.

Kobazuloko ibilaldia abentura berri bat suposatzen aukera bat izan da. Joan aurretik emozioa eta beldurra sentitzen genuen, urduritasuna eta lurrera erortzeko beldurra, harriak irristakorrek zeudelako hezetasunaren ondorioz.

Gehiena gustatu zitzaiguna kobazuloko urak eginiko leku estuetatik etzanda eta lokatzez goiti-behera zikinduta igarotzea izan zen, baita txirrista baten moduan, ipurdiz jaistea ere. Galeria



DBH1eko ikasleak Ernion aldean izan ziren eta ondoren Aia partean pasa zuten arratsaldea.

batera iritsi ginenean kobazuloaren hots eta iluntasunaren sentsazioan murgildu ginen linternen argiak bi minutuz itzaliz, lehenengo aldiz benetako iluntasuna saguzarren artean miresten genuela.

Amaieran eguzkiaren iz-

piak ikusteko gogoia sentitu genuen eta jaitzitako soka hartu eta irten ginenean poz handia sentitu genuen.

Arratsaldean gure Euskal Herri politaren paisaia begiraturaz joan ginen Aiaraino, baina ibilaldi luze hori ez zitzaigun hainbeste gustatu,

hiru ordukoa izan zen eta sekulako aldapak zeudelako.

Nekatuta iritsi ginen etxera baina neke hark merezi zuela, pentsatzen dugu, horrelako esperientzia izateagatik.

Hurrengo irteeran barrankismoa egitera joatea gustatuko litzaiguke.

## Ate Irekien Eguna Aginagako ludotekan

### AZAROAK 24 LARUNBATA

10:00 Haurrentzako kirol jokoak.

14:00 Bazkaria Aginagako soziedadean. Izen ematea, alde aurretik egin behar da hona deituz: 610 875 287.

17:00 Jakin eta Jolas pailazoak. Musikaz Blai.



Anoeta ezagutzen izan ziren aurreko astean.

### Ixabel Agirresarobe, udal liburutegian ipuin kontalari

Ixabel Agirresaroberen bisitak itxiko du, azarorako Usurbilgo Udalak antolatutako duen ipuin kontaketa saio sortu. Agirresarobe Sutegi udal liburutegian izango da, azaroaren 28an. HH4koei zuzendua egongo da, usurbildarrak iluntzeko 18:00etatik aurrera eskainiko duen saioa.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**BENTÅ TABERNÅ**

HANBURGESAK

Oilasko erreak

Ogitartekoak

943 36 93 05

ARRANDEGIA

**PELLO**

PUNTAPAX 7

943 36 21 64

USURBIL

## “Kolonbiako prozesuak gizarte zibilaren parte hartzearekin amaitu beharko luke”

Astelehenean, FARC-ek bi hilabeteko su etena iragarri zuen, gatazka konpontzeko Kolonbiako Gobernuarekin bosgarrenez elkarriketa prozesua Kuban hastera zihoazen egun berean. Nazioartea, Kuban gerta litekeenari begira dago egunotan. Baita noski, kolonbiarrak ere. Berriki, Usurbilen ospatu den V. Elkartasun Astearen baitan, hirugarrenez, mehatxupean bere sorterrira utzi behar izan duen Luis Plaza Velez sindikalista kolonbiarrak hitzaldia eskaini zuen. Lehenago, harrera egin zitzaion udaletxean, Usurbilgo Elkartasun Taldeko kideak eta udal ordezkari bat bertan zela. Tarte hartu genuen orduan, hasi berri den prozesua gertutik bizi izan duen sindikalista elkarriketatzeko.

### Nola ikusten duzu prozesu honen abiatzea?

**Luis Plaza.** Konfiantza dut politikan. Herriarren aurrerapenean, ongizatean eta garapenean eragingo duen prozesu luzea izango da. FARCEko problematikaz hitz egingo da. Baina eredu ekonomikoaz baita; langileak lan duin bat izatea, soldata duin bat, nekazariei lurra ematea, teknologia nekazal lurretara eramatea bere garapen ekonomikorako...

### Borondateari dagokionean, nola ikusten duzu gatazkan inplikatur dagoen alde bakoitza?

Borondatea FARC-ek du. Ziur naiz eurek



Usurbilgo Elkartasun Astearen izan zen Luis Plaza sindikalista kolonbiarra.

borondatea izango dutela. Gobernuak ez du borondaterik izango, baina presioagatik amore ematea tokatzen zaie, nazioartea prozesu honi begira baitago. Esperantza ez dugu galtzen. Baina jada nazio mailan badagoen presio hori indartzen ez bada, eta are gehiago nazioarte mailan, hor bai esperantza galtzeko moduan gara. Presioa badago, aurrerapauso izugarria emango dela ziur gara.

### Gizarte eragileek zer funtzio izan behar lukete prozesu berri honetan?

Kolonbian gehiengoa duen CUT sindikatuaren kasuan, Gobernuari prozesu honetatik kolonbiarrentzat positiboa izango den zerbait atera beharra dagoela, eskatua dio. Sindikatuko sektore ia denek ere adierazpenak egin dituzte.

### “BORROKAN JARRAITZEKO ZUTIK GAUDE ORAINDIK”

**Gatazka honek, biktima asko utzi ditu bidean. Tartean zu zeu?**

1984an izandako “Union Patriótica” izeneko mugimenduan bizirik irtendakoetako bat naiz. Mugimendu honen sorrera ezabatzeko, 3.000 lagunetik gora hil dituzte. Orain arte, prozesu bat egon denean, prozesu bakoitzak berehala errepresioa dakarrela erakutsi digu. Halere, oraindik, borrokan jarraitzeko zutik gaudete.

### Bosgarren saiakera da hau, baina ez duzue esperantza galtzen?

Ni orain hemen nago. Baina neure herrialdera itzultzean, borrokan jarraituko dut, eta indar handiagoz.

## Larunbat honetan, errausketaren aurkako eguna

Itaya Gazte Asanbladak egun pasa antolatu du, larunbat honetarako Errausketaren Aurkako II. Egunerako. Kontzertuak, bazkaria, kantu poteoa... Goizean mahai inguru batekin hasi eta igande goizaldera arte luzatuko da, aldarrikapen festa:

**Goizean, mahai ingurua Potxoenean:** "Nola eraman genezake borroka bateratu bat?"

**Eguerdian, herri bazkaria Gaztetxean,** bertso musikatuz lagundua: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Aitzol Ba-

randiaran eta Arkaitz Oiarzabal "Xamoa". Musikari berriz, saxoan Eneko Sierra "Xerra" eta gitarra jotzen beste bat. Sarrerak 12 eurotan salgai, Aitzagan eta Irratin, azaroaren 22ra arte.

**18:00 Kantu poteo aldarrikatzailea** Kantu Taldearekin bat.

**20:00 Anari Gaztetxean.** Sarrerak 5 euro.

**23:00 Kontzertuak Gaztetxean:** Desperpicio, Stupenda Jones, Gaueko Itzallak...

**Antolatzailea:** Itaya Gazte Asanblada.



Anariren kontzertua 20:00etan izango da.



# Lagun giroa izan zen nagusi



Jende askoren aurrean aritu ziren batzuk eta besteak. Pagazpe Pilota Elkartekoak oso pozik dira jaialdiak eman zuenarekin: “esker hitzak baino ez ditugu”.

**J**aialdiak oihartzun handia izan zuen hedabide-etan. Horri esker, jendetza bildu zen izaera benefikoa zuen pilota ikuskizunetan. Osagaiak gainera, erakargarriak ziren: profesional izandako pilotariak, herriko pilotariak, gurgildun aulkietan dabiltzan pala jokariak... Aurrekusi bezala, ikustekoak izan ziren batzuen eta besteen saioak. Dirua biltzeko antolatu zuen Usurbilgo Pilota Elkartek. Ia ba, denon ekarpenekin, behar dituzten gurgildun aulki berezi horiek eskuratzeko moduan dauden laster.

Eskerrak ematen hasita, lehenbizi lau pilotariak nabarmendu nahi ditu Pagazpe Usurbilgo Pilota Elkartek: “Xabier Santxo, Julen Urruzola, Mikel Goñi eta Fernando Goñi, doan jokatu baitzuten”. Baina badira esker onez aritu ziren lagun gehiago ere. Haien izenak dira Pagazpekoen hitz hauek: “Realari eta Imanol Agirretxeri, bi sarrera oparitzeagatik. Athletic-i eta Andoni Iraolari, bi sarrera oparitzeagatik. Aspe eta Asegarce pilota



Mikel Goñi palarekin ere aritu zen, argazkian ikus daitekeen moduan.

enpresei, Aimar-Irujo partidarako bakoitzak bi sarrera oparitzeagatik. Arruti harategiari txuleta lote bat oparitzeagatik. Bruño mariskoei lote bat oparitzeagatik eta Martin Berasategi jatetxeari, bi otordu oparitzeagatik”.

Laguntzen ibili ziren bolondresak ere asko izan ziren, errifekin, sarrerekin,

apustuekin, antolaketan... “Eskerrak eman nahi dizkiogu Usurbilgo herriari eta etorri zen jende guztiari, emandako laguntza moral eta ekonomikoarengatik”.

## ERRIFETAKO ZENBAKIAK

- Errealaren futbol partida bat ikusteko bi sarrera: 3026.
- Athleticen futbol partida bat

ikusteko bi sarrera: 4419.

- Bruño mariskada bat: 1131.
- Arruti harategiko txuletak: 4777.
- Martin Berasategi jatetxean bi otordu: 1346.
- Aimar-Irujo partida ikusteko bi sarreren zozketan hauek izan ziren asmatzaile-sarituak: Koro Rezola eta Izaskun Urruzola.

# Martxa onean ari dira

101 auzokonpostari ari dira zazpi gune ezberdinetan organikoa tratatzen

**D**uela urtebetetik hona, Erreka Txikin, Txaramunton, Puntapaxen, Txokoalden, Kalezarren, Bizkarren, hainbat herritarrek ez dute jada organikoa biltzeko ontzi marroia etxe atarian uzten. Hondakinen zatirik handiena, organikoa euren eskuekin auzolanean konpostatzen dute. Atxegalden bezala. Alperro-Buru kale ondoan dagoen gunean bitan osatu dute jada, etxean sorturiko organikoa ongari bihurtzeko prozesua. Ezin hobeto gainera.

Udan, uztaila aldera itxi zuten lehen zikloa. Bigarrena, duela gutxi, urria amaieran osatu zuten, Atxegalden auzokonpostean ari diren hogeitabat sendiek. Balorazio baikorra egin dute, guneko arduradun Joseba Pellejerok eta Jose Luis Lizasok. “Orokorrean, ondo ari gara”, adierazi diote NOAUA!ri. Udan, giro sargoriak usain txarra eragin edo ingurua elbiz bete ote zen beldur ziren. Baina azkenean, ez da aparteko arazorik izan. “Abuztuan egin duen beroarekin ere ondo egonda. Kasik elbirik gabe. Usainik ere ez”, adierazi du Lizasok. Atxegalden bizi arren, berak



Auzolanean aritzen dira hondakin organikoak konpostatzen.

San Markoko zabortege ondoan du baserria, eta honenbestez, zabor usaina gertu izatea zer den badaki. Argi dio, “hango usaina, edo hemengoa, bada aldea. Hemen ez dago hango usainik”.

## PRAKTIKOA ETA EROSOA

Gainerakoan, guneko funtzionamendua erraza dela diote, bizilagunek egin beharrekoak ez duela inongo zailtasunik. Eta eurentzat, arduradunentzat, aparteko ardurarik ere

ez. “Ez digu lanik suposatzen, ezta denbora ere. Joan, hustu, ikusi nola dagoen, lehorra falta bada ekarri, hango martxa eramane eta horrek ematen duen asebetetzearekin gertatzen gara”, adierazi du Pellejerok. Beste auzokonpostatze gune batzuetan, hilabeteen buruan, arduradunetzat aldatzeko ohitura dutela diote, baina euren kasuan, “lanik ematen ez duelako, segitzen dugu”.

Euren balorazioa baikorra dela jakinik, arduradun mo-

duan ez dute horretan geratu nahi izan. Gertutik, auzokonpostatzen ari diren atxegaldetarren iritzia ere jaso nahi izan dute hileotan. Horretarako bilera bat ere deitu zuten, konpostatze lanetan zer moduz zebiltzan jakiteko, edota kezkek, zalantzak partekatzeke. “Zortzi bat lagun bildu ginen eta denak ere nahiko ados ginen. Kexarik ba ote zen eta ezetz. Botatzerako garaian ia zer inpresio hartzen zuten botatzaileak, inguruan bat ote zen usainik edo inor kexatzen ote zen, horiek ziren gure kezka nagusiak. Euren iritzia, nahiko praktikoa eta eroso geratzen zela. Iritzi positiboak”, adierazi du Pellejerok.

Laster berriz biltzeko deialdia egin asmo dute, eta noizean behin, halako hitzorduak antolatzen jarraitu. Honez gain, eta auzokonpostatzaileen arteko komunikazioa hobetu asmoz, informazio panel bat ere jarri dute. Baita zabor ontzi txiki bat ere.

## Atxegalden, “topea jo dugu”

**H**amalau bat sendi ziren hasieran, gerora bizilagun gehiagok bat egin du auzokonpostatze egitasmoarekin, Atxegalden. Kalkulatzen dutenez, hogeitabat sendi edo izango dira. Eta hauei, bide beretik, lan hauetan hasi nahi baina itxarote zerrandan jarraitzen duten familiak gehitu behar

zaizkie. Partaide berriok, Alperro-Buru kale ondoan dagoen gunean behintzat ezingo dute hasi, eremu honetako arduradunen esanetan, konpostatzeko bi gailu dauka, hamarna sendi erabiltzaile gailu bakoitzeko, eta ondorioz, “topea jo dugu”.

Herritarrauk auzokonpostatzera ani-

matzen dituzte. “Hondakinen zati handiena proportzioan trata dezakegu. Zerorrek ixten duzu zikloa, baserrietan bezala”, gogorarazten du Joseba Pellejerok. Erraztasun handiak dituela gaineratzen du Jose Luis Lizasok. Bere esanetan, “leku eta herri gehiagotan behar luke. Sistema ona da hau”.

# Zortzigarren gunea, irekitzeaz



Anbulatorioaren inguruan zabalduko dute auzokonposta egiteko gunea berria.

Usurbilgo Udalak antolaturiko Hondakinen Prebentzio Asteari ekiteko, Auzokonpostariari I. Batzarra ospatu zen larunbat goizean. Gai honi lotuta, asteburu honetan, Errekatzikiko auzokonpostatzeko lehen eremua inauguratu zela urtea beteko denean, Usurbilgo Udalak berri eman duenez, egun 101 sendi dabilta Usurbilen konpostatze komunitarioa egiteko egokitu dituzten zazpi eremutan. Beste 69, itxarote zereñdian daude.

Auzokonposta, Usurbilen konpostatzen den organiko guztiaren %17a da egun. Gainerako %83a etxeetan, auto-konpostagailu bidez lantzen dute, 498 familiek hain zuzen. Urtean, 111,9 tona. Guztira, etxeetan nahiz modu komunitarioan, 134,6 tona organiko konpostatzen dira urtean Usurbilen.

Horiek Usurbilen konpostatzen denari loturiko zenbakiak dira. Kalitateari dagokionez, Usurbilgo Udaleko Ingurumen Saitetik berri eman dutenez,

"lortu den konpostaren maila oso ona izaten ari da, eta ia kasu gehienetan goreneko A mailakoa da. Lortutako konposta parte hartzaileek beraiek hartu izan dute edo bestela Atalluko garbigune berrian eskuragarri dago nahi duenarentzat eta dohainik".

## ANBULATORIO INGURUAN

Orain arte, auzokonpostarako zazpi gunea ireki dituzte. Laster ordea, zortzigarrena ere martxan izango da. "Epe laburrean anbulategi inguruan zabalduko da beste gunea bat eta modu honetan beste 21 familia hasiko dira auzokonpostatzen. Horretaz gain, Agerreazpiko udal baratzetan ere autokonpostatu ahal izango da, eta herriko konposta bahetu eta xehezko azpiegiturak jarriko dira", adierazi dute udal Ingurumen Saitetik. Auzokonpostatze egitasmoan parte hartzeko

interesa duenak, izen emateko aukera du. "Talde berriak osatzeko familia eta leku aproposak topatzen diren heinean, ekimena zabalduz joango da", ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik.

## AUZOKONPOSTA, OPARI

Lurretik hartutakoa lurrari itzultzea ahalbidetzen du konpostatze prozesuak. Horretan ari dira hainbat usurbildar. Etxeko organikoak tratatzen, konpostatzen. Eurek eginiko konposta, aste honetan zehar Sutegin zabaldu duten "hondakin-ongizate +" erakusketan dago. Ez bakarrik ikusgai, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, nahi duenak ezeren truke har dezake aipatu konposta, erakusketaren aitorera hurbilduta. Edota larunbat goiz honetan, azaroaren 24an, plazara gerturatuta. Bertan gainera, auzokonpost egitasmoan parte hartzeko informazioa ere jaso ahal izango da.

**"Gune herrian organikoa auzokonpostatzen hasiko dira beste 21 familia"**

## Sortzez besteko ordainketa, Hondakinen Prebentzio Astean

### Astean zehar

18:00-20:00 "Hondakin - Ongizate +" erakusketa Sutegin.

### Azaroak 21, asteazkena

Udarregiko haurrekin "Gure kaleak garbiago nahi ditugu!" ekimena.

### Azaroak 22, osteguna

18:00 Hitzaldia Sutegin: Sortzez besteko ordainketa Usurbilen. Hizlariak: -Joan Pujol Argentonako Udaleko ingurumen teknikaria. Sortzez besteko ordainketaren Argentonako eredu. (gaztelaniaz)



-Ignasi Puig (argazkian) ENT Environment and Management. Usurbilen hondakinen sortzez besteko ordainketa abiarazteko bideragarritasun lanaren egilea. (gaztelaniaz)

### Azaroak 23, ostirala

18:00-20:00 Etxetresna elektrikoaren konponketa tailerra Potxoenean.

### Azaroak 24, larunbata

10:00-12:00 Jostungintza eta bitxigintza tailerrak Potxoenean. Oharra: tailerretarako izen ematea udaletxean, 943 371 951 edo mailez: ingurumena@usurbil.net.



Izena emateko epea irekita dago.

**K** NOAUA!  
KULTURALDIA  
2012  
Azaroak 2, 3, 10, 11 eta 30  
USURBIL

**AZAROAK 30**, ostirala:  
*“LETEREKIN KANTU  
BERBETAN”*  
Jon Sarasuaren  
HITZALDI-KANTALDIA  
19:30etan SUTEGIN  
SARRERA: Doan

Antolatzaileak:  
**noaUA**

Laguntzaileak:  

 Usurbilgo  
Kantu Taldea

**EUSKARAZ BIZI  
NAHI DUGU**

abenduaren **1ean**  
**donostia**  
**17:00etan**  
anoetaestadiotik

**manifestazioa**

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA



## Joseba Etxegoien

### ZUMARTE MUSIKA ESKOLA

2012-11-23

Zumarte Musika Eskolako musikariok egin dugun saioaren izena da Musikalean. Euskal Herriko beste hainbat musika eskolak bezala, Santa Zeziliaren omenez burutu duguna. Izenburuak berak dioten bezala, musika kalean. Gure kasuan, baita barruan ere, Sute-gi aretoan kontzertua eskaini baitugu kalejiraren ondoren.

Izan zitekeen musika alean, banaka eta zatitxoka, baina taldean egitearen gozamenen kenduko geniokeen. Hortaz, taldeetan atera gara kalera eta ohol-tzara, ikasturte honetako lehen hilabeteetan landutakoa erakustera.

### MAKINA BAT ENTSEGU

Gure lana kaleratu aurretik, jakina, lan dezente egin behar izan dugu. Ez kalean, Zumarte barruan baizik. Musika lokalean, beraz. Makina bat entsegu entzun (eta jasan) dute musika eskolako pareta zaharrek! Entsegu horietan bai, musika aletu egin izan dugu; ahotsez ahots, esaldiz esaldi, konpasez konpas eta notaz nota landu ahal izateko.

Santa Zezilia egunaren bezperan entzun ahal izan dena, beraz, alde aurretik egindako lan

# Bakoitzak gure alea jarrita, denon artean, Musikalean



Euskal Herriko Musika Eskolaren ekimena da Musikalean.

horren guztiaren emaitza izan da. Zumarteko soto, ganbara eta gelatan landutakoarena, baina batez ere, gure ikasle bakoitzak bere kabuz egindakoaren emaitza. Ez baita gutxi musika eskolako ikasleek urteetan zehar egiten dutena!

Urruti dirudite lehen urteetan egindako jolas, txalo eta saltok. Tartean, beltzak, kortxeak eta neurri ezberdinak ikasi dituzte.

Tresna aukeratu eta lehen notak jotzen ikasi: sokari eragin, tekla sakatu, putz egin, makilak astindu edo hauspoa ireki eta itxi.

### SENTIMENDU JARIOA

Dagoeneko ahaztuta izango dute zenbat kosta zitzaien *Pintto-Pintto* edo *Katagorria* jotzen ikastea. Baina tarte honetan, denbora asko eta intentzio handia jarri behar izan dute. Gustura batzue-

tan, ariketak aise eta ongi aterata; ezinean beste batzuetan, musika-tresna pikutara bidaltzeko gogoia ematen duen pentagrama zati txiki batean trabatuta.

Horixe baita musika, sentimendu jarria: maitasuna eta gorrotoa, poza eta tristura. Eta horixe da asteazkenean adierazi duguna, bakoitzak gure alea jarrita, denon artean, Musikalean.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

# Mendi Astea, gertu

Hitzaldia, irudi proiektzioak, ibilaldia eta bazkaria, ekitaldien artean

Azaroko azken egunetara aurreratuta, badator Andatza Mendizale Elkarteak antolatutako Mendi Astea. Hilaren 27tik abenduaren 1era hitzaldi, proiektzio, edota irteera bana tartekatuko dira.

Datorren Mendi Astearen baitan emango da II. Argazki Lehiaketako sarituen berri, azaroaren 29rako antolatu den ekitaldian. Aurretik, Josu Bereziartuaren "Broad Peak 2010, hastapenetara itzulera" proiektzioaz gozatu ahal izango da. Bezperan, argazki eta bideo gehiago, kasu honetan, Andatzakoek urtean zehar egin dituzten irteeratan ateratako irudien bilduma erakutsiko dute. Mendiko ekipamendua eta segurtasuna hizpide duen hitzaldi batekin hasiko da Mendi Astea. Amaitu berriz, mendi ibilaldi batekin. Ez ahaztu, Sutegin burutuko diren ekitaldien aurretik, 2012ko federatu txar-



Andatzako kideak, irailean Enkarterrietara egin zuten irteeran.

relak berritu eta mendi irteerarako izen emateko aukera egongo dela. Hona hemen, Mendi Asteako egitaraua:

## MENDI ASTEA 2012

### Azaroak 27, asteartea

■ **19:00etan Sutegin:** "Mendiko ekipamendua eta segurtasuna" hitzaldia, Kepa Lizarragaren eskutik.

### Azaroak 28, asteazkena

■ **19:00etan Sutegin:** Andatza Mendi Taldeko kideek eginda-

ko irteeren bideo eta argazki emanaldia.

### Azaroak 29, osteguna

■ **19:00 Sutegin:** Josu Bereziartuaren "Broad Peak 2010 hastapenetara itzulera" proiektzioa eta "Oria ibaia Usurbilen" gaitzat duen II. Argazki lehiaketaren sari-banaketa eta luntxa.

### Abenduak 1, larunbata

■ **08:00** Mendi ibilaldia eta ondoren, Patri jatetxean bazkaria.

## Domina gehiago judo taldearentzat

Azken asteotan parte hartu duten txapelketa desberdinetan, ohi bezala, domina gehiago eskuratu dituzte Usurbil Judo Klubeko kideek. Euren web orriak jaso duenez, azaroaren 10 eta 11ko asteburuan, Malagako European Cup Senior txapelketan, brontzezko domina irabazi zuen Aiora Arrillagak, 48 kiloz azpikoen mailan. Nerea Arrutik, zazpigarren postua 70 kiloz azpikoen mailan.

Aurretik, azaroko lehen asteburuan, Hondarribiako 17 urtez behararako Espainia mailako txapelketan izan ziren. Estatuko kadete

mailako 360 judoka lehiatu ziren. Bertan, Naroa Sanchezek eta Joxe Arruebarrenak brontzezko domina bana irabazi zuten, -48 kiloz azpikoen eta 90 kilotik gorako mailetan hurrenez hurren. Xabier Cazorlak (-73kg) urrezkoa eskuratu zuen.

Urriaren 27 eta 28ko asteburuan, Avilesen ere ez ziren esku hutsik geratu. Nesketan, Paula Vicentek (-44 kg) zilarrezko domina irabazi zuen, Naroa Sanchezek (-48 kg) brontzezkoa, eta Itsasne Arruabarrenak (-52 kg) bosgarren postua. Mutiletan, Xabier Cazorlak zilarrezkoa (-73 kg) eta Iker Nikolasek (-73 kg) bosgarren postua.



Hondarribian, Avilesen, Malagan eta Tarbesen lehiatu dira azkenaldian.

Asteburu berean baina Tarbesen (Frantzia), Aiora Arrillagak eta Nerea Arrutik urrezko domina bana eskuratu zituzten, Egoitz Morak brontzezkoa eta Andoni Aizpuruak bosgarren postua.

## Peña Zubeldiaren bazkaria, larunbat honetan

Urteroko bazkaria antolatu du Peña Zubeldia elkarteak, azaroaren 24rako. Ohi bezala, otordua Aginaga sagardotegian ospatuko dute. Txartelak salgai egongo dira hilaren 22ra arte Txiribogan (27 euro).



Txartelak azaroaren 22ra arte egongo dira salgai Txiribogan.

## Futbol partidak

2012/11/24, larunbata:

**10:00 Alebin Mutilak Futbol 8**  
Udarregi 6A  
15:30 Regionalak.  
17:30 Kadete F-11.

2012/11/25, igandea:

**Alebin Federatuak:**  
10:00 Billabona-Tolosa.  
11:15 Lazkao-Usurbil.  
Ostadar-Euskalduna.  
12:30 Urola-Beasain.  
Hernani-Ordizia.

## Eskubaloi partidak

2012/11/24, larunbata:

**10:00 Alebin neskek:**  
Udarregi 5B - Urnieta 5A  
**10:00 Alebin neskek:**  
Udarregi 5A - La Salle 5  
**11:00 Infantil neskek:**  
Udarregi A - Udarregi B  
**16:30 Jubenil mutilak:**  
Usurbil K.E. - Hondarribia  
**18:00 Senior neskek:**  
Atez Ate Usurbil - Leizaran  
**19:30 Senior mutilak, 2. territoriala:** Usurbil K.E. - Egia

2012/11/25, igandea:

**10:00 Infantil mutilak:**  
Udarregi Usurbil - Zarautz  
**11:30 Kadete neskek:**  
Usurbil K.E. - Aloña Mendi K.E.

# Preferente mailako futbol taldea, lehen postuetan amaitzeko lehia betean

**D**enboraldi hasierarekin gustura dira Preferente mailako Usurbil FT-ko kideak. 23ko taldea osatu dute kirol urte honetarako eta erronka bakarra dute buruan; iazko sailkapena hobetu eta lehen postuetan amaitzea. Bigarren, taldean entrenatzaile lanean dabilen Mikel Rotetak dartzatza zehaztasun gehiago.

## Nola osatu duzue aurtengorako taldea?

**Mikel Roteta.** 23 gaude taldean. Iaz 25 ginen, bi geratu dira fitxa gabe. Beste guztiok jarraitzen dugu, ez dugu berririk. Oso ondo hasi gara. Gure asmoa lan horrekin jarraitzea da eta denboraldi luzea denez, bukaeran ia aurreko urteko posizioa hobetzen dugun.

## Aurreko denboraldiko saria lehen lau postuetan egotea zela aipatzen zenigun iaz. Helburua lortu zenuten?

Iaz seigarren postua hobetu nahi genuen. Historian zehar, ez zuten behin ere lortu eta hori genuen helburua. Azkenean, bosgarrena lortu genuen. Aurten ere hobetu nahi dugu. Lehen bost postuetan amaitzea, horrek izan behar du helburua.

## Helburu hori lortzeko zein da taldeko estrategia, dinamika?

Iazko lana nabaritu da. Aurreko urtearen hasieran gehiago kostatu zitzaigun jokoa egitea eta entrenamendu saioak nahi genituen moduan betetzea. Baina iaztik hona taldeak asko hobetu du. Entrenatzea eta helburuak lortzea askoz errazagoa izaten ari da guretzat. Are gehiago, batez ere dugun taldearekin, jokalaria lagunak dira denen artean. Eta



Usurbil FT taldeko jokalaria eta entrenatzailea, entrenamendu batean.

hori nabari da partidetan zehar.

## Denboraldiko egutegia nola duzue antolatua?

Guk astelehen, asteazken eta ostegunetan entrenatzen dugu. Normalean larunbatetan izaten dira partidak eta horren arabera, saio gogorrenak asteazken eta ostegunak izaten dira. Astelehenak, errekupe-

**MIKEL ROTETA**  
**“Bigarrenetik zortzigarreneira oso maila parekatua dago”**

tzeko. Jendea fin dabil eta gustura ari da entrenatzen.

## Iaz lehen postuetan sailkatzeko lehia oso estua zela zenuen. Aurten ere berdin ari

## da gertatzen?

Lehenengo postua oso zaila da. Basconiak goi mailako jokalaria baititu eta zaila izango da horri eustea. Baina bigarrenetik zortzigarreneira oso maila parekatua dago. Maila pixka bat jaisten duenak kale egingo du eta guk une hori baliatu eta dugun taldea bigarren edo hirugarren postura begira jarri nahi dugu.

## “Badakigu gero indartsuak izan behar garela, batez ere estrategian”

### Taldearen indar guneak zeintzuk dira?

**Mikel Roteta.** Oso indartsuak gara baloiarekin. Kalitatekoak dira, baloia edukitzea gustatzen zaie. Gure asmoa eta izateko era da, beti baloiarekin pentsatzea. Badakigu gero indartsuak izan behar garela, batez ere estrategian, gure kontrari. Hori asko hobetu dugu iaztik hona, batez ere, golak gure atean ez sartzean.

### Zuen areriorik gogorrenak zein izan litezke?

Iaz puntu bat falta zitzaigun, eta horregatik gol asko egiten

genituen, baina jaso ere bai. Aurten puntu hori asko hobetu dugu. Orain arte gol gutxiaren duen taldea gara. Gol gehiago sartu nahi ditugu, talde guztiak bezala. Hori hobetu behar dugu. Baina oro har, beste arlo guztietan oso pozik nabil.

### Hau zure bigarren denboraldia da. Entrenatzaile moduan, zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Egia esan, uste baino askoz ho-beagoa. Ia zer talde dagoen, ze jende dagoen pentsatuz etorri nintzen. Egia esan, bai jokalaria eta zuzendaritzakoekin, dene-

kin oso gustura nabil. Asmatu dut hona etortzean.

### Zer esan taldeari?

Astero esaten diedana. Hemen ezin dugula maila jaitsi. Hau eguneroko lana dela, eta batez ere ilusioa mantentzea. Ilusioa mantentzen badugu, seguru helburuak lortuko ditugula.

### Preferente mailako taldeak badu etorkizunik?

Etorkizuna ziurtatua du, dugun jende gaztearekin. Ilusio handiarekin datoz. Euren jarrera oso ona da. Aurrera begira, taldeak jarraituko duela seguru.





lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889/692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espereintzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldari lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan.

638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

### BESTELAKOAK

Txamarrak eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigo eta jertseko eskailera ondoan. Aurkitu badituzu deitu 660 779 160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gasuz usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko palatxiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako

frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzainetara utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen da. 636 462 210.

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Akordeoa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Atez ateko bulegoa .....	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Eusko Tren .....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Anbulategia .....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Oa botika .....	943 376 076
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Iturralde botika .....	943 363 395
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	DYA .....	943 464 622
Haur Eskola .....	943 374 061	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Emergentziak .....	112
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
KZgunea .....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Oiarde Kirolegia .....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Popular Español .....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	BBVA .....	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza .....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Telefonica .....	1004
Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak azaroaren 22tik abenduaren 2ra

<b>Osteguna 22</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Ostirala 23</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Larunbata 24</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Igandea 25</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Astlehena 26</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
<b>Asteartea 27</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Asteazkena 28</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

<b>Osteguna 29</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Ostirala 30</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Larunbata 1</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Igandea 2</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe.  
Hernani. Tel.: 943 552 087  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**TXAPELDUN**  
TABERNA

razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

# Agenda azaroa

## 23 ostirala

■ **Etxetresna elektrikoaren konponketa tailerra.** 18:00-20:00 Potxoenean. Izen-ematea: 943 371 951 / ingurumena@usurbil.net

## 24 larunbata

■ **Jostungintza eta bitxigintza tailerrak**  
Potxoenean, 10:00-12:00. Izen-ematea: 943 371 951 / ingurumena@usurbil.net  
■ **Kantu jira.** 18:00etan Mikel Laboa plazatik.

## 25 igandea

■ **XIV. Erle Eguna.** Goizean frontoian.  
■ **Helduentzat zinea: "En el tiempo de las mariposas".** 18:00etan Sutegin.

## XIV. Erle Eguna igandean

**L**iztor asiarrak eragindako kalteak albiste iturri izan dira azkenaldian, eta gai honek bere lekua izango du hain zuzen, azaroko azken igande honetan ospatuko den Erle Egunean. Hilaren 25erako Erle Lagunak taldekoek prestatu dituzten ekitaldien artean hain zuzen, liztor asiarrari buruzko erreportajea eskainiko dute Sutegin. Gainerakoan, ez da ohiko hitzordurik faltako. Azoka, ezti, gozogintza eta marrazki lehiaketak, edota Aginaga sagardotegian ospatuko den bazkaria.

- **09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.**
- **11:00-14:00 Erakusketa** (erleak, argizaria, panelak), postuetako salmenta, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa.
- **10:30, 11:00 eta 11:30 Sutegin,** Erle asiaticoari buruzko erreportaia.
- **13:30 Erleek beraiek ekarritako sari**

## Film emanaldia, azaroaren 25ean

Igandean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna izango da. Horren haritik, film emanaldia antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekide-tasun Sailak. "En el tiempo de las mariposas" filma ikusteko aukera egongo da, iluntzeko 18:00etatik aurrera Sutegin (2 euro sarrera).



Igande goiz eta eguerdi partean ospatuko da.

- banaketa** (ezti, gozogintza eta marrazki lehiaketa) eta ezti sarituen enkantea.
- **14:30 Bazkaria Aginaga sagardotegian.** (Txartelak egunean bertan frontoian salgai).
- Egunean zehar, **Zubieta, Aginaga eta Udarregi ikastolako umeen marrazkiak** Sutegin erakusgai.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.

## Artzabalen pintura erakusketa

Artzabalen pintura ikastaroan parte hartzen duten ikasleen lanak ezagutzeko aukera izango da egunotan. Gai desberdinetako oleoak zintzilikatuko dituzte, Artzabal tabernan. Ikasleek azken bi urteotan egindako lanen artean, aukeraketa bat jarri da ikusgai.

### Datozenak

#### "Leterekin Kantu Berbetan" emanaldia

Jon Sarasuaren saioarekin amaituko da NOAUA!k antolatu duen Kulturaldia. Xabier Leteren hamar bat kanta eskainiko ditu. Emanaldi xumea da, sofistikazio gutxikoa. Hainbat gairi buruzko gogoetak tartekatuko ditu. Kantak gitarrarraz eta pianoz lagunduak datoz, "eta bukaera aldera kanta bat entzuleekin batera kantatu ohi dugu". Usurbilgo Kantu Taldearekin batera antolatu dugun saio hau azaroaren 30ean izango da, 19:30ean Sutegin.



Azaroaren 30ean Sutegin.

#### Odol Emaileen Eguna

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna ospatuko da Patri jatetxean. Izena emateko, deitu telefono zenbaki hauetako batera: Agustina (943 363 102), Maite (943 36 60 40), Jero (943 370 723), Mari-sol (943 372 487) edo 615 760 458 (Patxi). Otordua, 33 euro.

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
661 804 688  
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Santo Tomas eguna ospatzeko deialdia



Noaua!k baserritar guztiak  
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sargardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **16an**  
igande goizez

## Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

**Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.**

## Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izen emateko datak:

**AZAROAREN 26tik AZAROAREN 30era**

**ABENDUAREN 10etik 13ra**

(lau datak barne)

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:


- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

## Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€**
- **3. saria: 50€**

**Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.**



**noaua**



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79  
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzealde), LASARTE-ORIA

Josue  
Igeltseritza S.L

Fax: 943 24 34 80  
Atallo pol. atallo. 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra  
943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



**ANORGA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo  
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA  
ARANGUREN  
ITURGINTZA

943 83 00 72  
659 88 39 12

Bainu eta sukalde  
erreformak, gasa,  
berokuntza

Josetxo Ikatzeta

687 951 225



MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO**  
PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



Antonio  
URRUSOLA  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol

AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirreletrizitatea@hotmail.com

**izagirre**

Elektrizitatea

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37  
Kale Zahar Auzoa

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL